

# HAU LAPURRETA BAT DA!

[ialday@irakasle.net](mailto:ialday@irakasle.net)

Iñaki Aldai

\* Antzezlan hau, lau skech-ez osaturik dago. Guztietan, banketxe bateko lapurreta antzezten da. Sketh bakoitzak ez du zer ikusirik bestearekin, beraz, antzezlan nahi beste laburtu daiteke (2, 3 edo 4 skech antzez daitezke).

\* Gauza bera gertatzen da pertsonaiekin. Skech guztietan pertsonaiak ezberdinak izan daitezke, edota errepikatu daitezke. Gutxieneko kopurua 10-11 pertsonaietakoa da.

## PERTSONAIAK

. Inspektorea	. Bezeroa 3	. Bezeroa 7	. Polizia 1
. Lehiatilako langilea	. Bezeroa 4	. Lapurra 1	. Polizia 2
. Bezeroa 1	. Bezeroa 5	. Lapurra 2	. Polizia 3
. Bezeroa 2	. Bezeroa 6	. Lapurra 3	. polizia 4

\* L.Hko 5 eta 6. mailan eta DBHn egiteko egokia

## 1. eszena

Inspektorea: Kaixo, ni Mari Pili Argibili ispektorea naiz, banketxe lapurretan espezializatutako polizia. Nire bizitzan zehar lapurreta asko aztertu izan ditut, baina bitxienak, dudarik gabe honako hauek izan dira.

*(Banketxe batean 7 bezero eta banketxeko Lehiatilako langilea daude)*

Lehiatilako langilea: Egun on Kosme. Zer dugu gaur?

Bezeroa 1: Egun on Maite. 200 euro atera nahi ditut.

L. L: Ederki. Hemen daukazu. Agur eta eskerrik asko. Hurrengoa mesedez.

Bezeroa 2: Egun on. Nire aurrezki kartillan 500 euro sartu nahi ditut.

L. L: Ondo da. 500 euro zure kartillan. Agur eta eskerrik asko.  
Hurrengoa mesedez

Bezeroa 3: Egun on Maite. 300 euro atera nahi ditut.

*(Bi lapur sartzen dira pistolekin. Aurpegia zapi batekin estalia daramate)*

Lapurra 1: Geldi! Hau lapurreta bat da!!!

Lapurra 2: Lurrera Mundu guztia!!!

*(Bezeroak lurrean etzaten dira)*

Bezeroa 4: Ez egin minik mesedez!

Lapurra 1: Ixo!

Lapurra 2: Egon ixilik eta ez da ezer gertatuko.

Bezeroa 5: Jaunak, ni bihotzetik gaixo nago eta guzti honek ez dit  
batere onik egiten.

Lapurra 1: Isilduko zarete behingoz!

Lapurra 2: *(L.L.ri hitz eginez)* Eman iezaguzu banketxeko diru guztia.

L.L: Ez urduri jarri. Oraintxe bertan emango dizuet.

Lapurra 1: Ez guri tranparik egin.

Lapurra 2: Bestela...*(Lepoa moztearen keinua egiten dio)*

*(Bezera guztiak ikaratuta lurrean daude. Emakume bat ordea altxatu egiten da).*

Bezera 6: Ahots horiek...

Bezera 7: Nora zoaz emakumea?

Bezera 6: Keinu horiek...

Bezera 7: Zoratu egin ahal zara?

Bezera 6: Esango nuke ezagunak egiten zaizkidala.

*(Lapurrengana hurbildu eta tirakada batez aurpegiko zapia kentzen die)*

Bezera 6: Martin eta Alaitz!!!

Lapurra 1+2: Ama???

Bezera 6: Jakin al daiteke ze arraio egiten ari zareten hemen?

Lapurra 1+2: Zera... gu...

*(Lapur bakoitza belarri batetik heltzen du)*

Lapurra 1: Aiiii, ai aiiii. Ama... belarritik ez. Aiii...

Bezera 6: Etxera oraintxe bertan!

Lapurra 1: Aii, nire belarria.

Bezera 6: Eta aste osoa telebistarik gabe!!!

Lapurra 1+2: Ez ama, telebistarik gabe ez....

## 2. eszena

Inspektorea: Bai , bai, bai. Benetan ama semeen kasua berezia izan zela.  
Hurrengo ere ikustekoa da.

*(Banketxean txanda hartzeko tiket makina dago)*

Lehiatilako langilea: Nor da lehena?

Bezeroa 1: Nik daukat 1 zenbakia

L.L: Aurrera orduan. Egun on Antxon. Zer dugu gaur?

Bezeroa 1: Egun on Zuriñe. 200 euro atera nahi ditut.

L. L: Ederki. Hemen daukazu. Agur eta eskerrik asko.  
2 Zenbakia aurrera.

Bezeroa 2: Nik daukat 2 zenbakia. Nire aurrezki kartillan 500 euro sartu  
nahi ditut.

L. L: Ondo da. 500 euro zure kartillan. Agur eta eskerrik asko.  
3 zenbakia aurrera.

Bezeroa 3: Nik daukat 3 zenbakia.

*(Bi lapur sartzen dira eszenotokian)*

Lapurra 1: Geldi! Hau lapurreta bat da!!!

Bezeroa 4: Ai ene, lapurreta...

Lapurra 2: Altxa eskuak guztiok!!!

Bezeroa 5: Ez egin minik mesedez!

Lapurra 1 : Ixo!

Bezeroa 6: Ez urduri jarri.

Lapurra 1: Eman iezadazu banketxeko diru guztia!

L.L: Oraintxe bertan.

*(Momentu horretan lapurra 2 banketxean sartzen da).*

Lapurra 2: Geldi! hau lapurreta bat da!!!

L.L: Beste lapurreta bat?

Lapurra 1: Aizu! Hemen neu ari naiz lapurreta egiten.

Lapurra 2: Baina orain ni heldu naiz. Joan zaitetz beste banketxe batera.

Lapurra 1: Ni etorri naiz lehenago.

Bezeroa 4: Bai, bai. Arrazoia du. Lehenago heldu da.

Bezeroa 5: Baina ez du txandaren tiketa hartu

*(Lapur biak une batez pentsakor gelditzen dira. Halakoren baten, lapurra 4 arin arin txanda tiketa hartzera abiatzen da).*

Lapurra 2: Zein zenbaki daukazu?

Lapurra 1: Zera.... nik... itxaron... *(txanda zenbakia hartzera hurbildu eta tiketa hartzen du)*

5a daukat.

Lapurra 2: Nik 4a. Zure aurretik nago.  
Altxa eskuak mundu guztiak!!! Hau lapurreta bat da!!!

Lapurra 1: Aurreratu egin zara! Ni nengoen lehenago.  
Altxa eskuak guztiok! Hau lapurreta da!!!

L.L: Lasaitu gaitezen. Txanda jarraituko dugu. Nork dauka 4a ?

Lapurra 2: Nik!!!

L.L: Aurrera Orduan.

Lapurrra 2: Hau lapurreta bat da!!!

(Bi polizi sartzen dira banketxean)

Polizia 1: Ez dadila inor mugitu!

Polizia 2: Polizia gara!

Polizia 1: Atxilotutua zaudete!

Lapurra 1: Begira zer gertatu den zure erruagatik!

Lapurra 2: Zure errua izan da!

Bezeroa 1: Eskerrik asko polizi jaun-andreoak

Bezeroa 2: Salbatu gaituzue.

(Beste 2 polizi berri sartzen dira banketxean)

Polizia 3: Ez dadila inor mugitu!

Polizia 4: Polizia gara!

Polizia 1: Atxilotutua zaudete!

Lapurra 1: Beste atxiloketa bat?

Polizia 1: Aizue, gu etorri gara lehenago eta guk atxilotuko ditugu.

Polizia 3: Baina orain gu heldu gara. Joan zaitetze beste lapur batzuk atxilotzera.

Polizia 2: Gu geunden lehenago.

Bezeroa 1: Arrazoia du. Lehenago heldu dira.

Bezeroa 2: Baina ez dute txandaren tiketa hartu.

*(Polizia 4 arin arin txanda tiketa hartzera abiatzen da)*

Polizia 4: Zein zenbaki duzue?

Polizia 2: Zera... guk... itxaron...*(txanda zenbakia hartzera abiatzen da)*  
7a daukagu.

Polizia 4: guk 6a. Aurretik gaude!  
Ez dadila inor mugitu!!! Atxilotuta zaudete!!!

*(Lapur berri bat sartzen da banketxean)*

Lapurra 3: Altxa eskuak guztiok!!! Hau lapurreta bat da!!!

Pertsonai guztiak: Itxaron zure txanda!!!

### **3. eszena**

Inspektorea: Harritzekoa bada ere, ezagutu ditut oraindik lapurreta arraroagoak. Entzun eta ikusi.

Lapurra 1: Hau lapurreta bat da!. Altxa eskuak!

L.L: Lapurreta?

Lapurra 1: Bai. Eman iezadazu daukazun diru guztia!

L.L: Lapurreta, benetakoa?

Lapurra 1: Aizu, txantxetako aurpegia daukat?

L.L: Ongi da, ongi da. Ni diru guztia emateko prest nago, baina lehenengo, erakutsiko didazu mesedez lapurra zarela adierazten duen agiria?

Lapurra 1: Lapur agiria?

L.L: Bai jauna. Nola dakit, bestela, lapurra zarela?

Lapurra 1: Postaria naizela uste duzu akaso?

L.L: Postaria ez dakit, baina lapur itxura haundirik ez duzu.

Bezeroa 1: Hori egia da.

Bezeroa 2: Nire ustez albaitari itxura daukazu.

Lapurra 1: Aizu, errespeto bat.

L.L: Begira adibidez zure pistola.



Lapurra 1: Zer gertatzen zaio nire pistolari?

L.L: Zer gertatzen zaion? Ez zegoen tresna txatxarragorik?  
*(Mahai azpitik eskopeta haundi bat atera eta lapurra beldurtu egiten da)*  
Ikusten al duzu eskopeta hau?

Lapurra 1: Bai... bai. Zera... baina....

L.L: Tori eskopeta, eta bota zakarrontzira pistola hori.

*(Lapurrak, harrituta, eskopeta hartzen du)*

Bezeroa 1: Orain bai, eskopeta horrekin beste itxura bat daukazu.

Lapurra 1: Zera... Emaidazu behingoz dirua!

L.L: Ondo da, baina erakutsiko didazu mesedez mediku zertifikatua?

Lapurra 1: Mediku zertifikatua?

L.L: Bai jauna. Lapurra izateko behar den mediku zertifikatua.

Lapurra 1: Nik... nik ez nekien halakorik behar zenik.

L.L: Hau da hau. Tira, nik egingo dizut zertifikatua. Baina aurretik aztertu egin behar zaitut.

Lapurra 1: Aztertu? Baina zu medikua al zara?

L.L: Medikua, medikua... ez. Baina orain 20 urte Benidorreko hotel batetako pizninan sokorrista izan nintzen. *(Fonendoskopioa ateratzen du mahai azpitik)*

Hartu arnasa, bota arnasa, hartu arnasa, bota arnasa, hartu, bota.

Ummmm, birika hauekin korrika ihes egiteko arazoak izango zenituzke.

*(Eztarria aztertzeke makilatxoa ateratzen du)*

Ikus dezagun eztarri hori.

Lapurra 1: Baina jauna...

L.L: Esan Aa.

Lapurra 1: Aaaaaaaaaaaaa

L.L: Orain esan "hau lapurreta da"

Lapurra 1: Hau lapurreta bat daaaaaaaaaaaaaaa.

L.L: Banketxe oso haundia izan ezkerro ez dizu inork entzungo. Ea ikusmena

*(Eszenatoki beste puntara aldentzen da eta diru paper ezberdinak erakusten hasten da)*

Esaidazu zein motatako diru paperak diren. Hau?

Lapurra 1: 10 euroko

L.L: Eta hau?

Lapurra 1: 50 eurokoa

L.L: Beste hau?

Lapurra 1: Zera... 100 eurokoa?

L.L: Huts galanta! Hau dolarra da.

Lapurra 1: Baina nik ez dut dolarra ezagutzen...

L.L: Ez dakit merezi duzun, baina tira, mediku zertifikatua luzatuko dizut.

*(Paper batean idatzi eta eman egiten dio)*

Lapurra 1: Orain bai. Emaidazu diru guztia

L.L: Zapia eta txapela falta zaizkizu.

Lapurra 1: Zapia eta txapela?

L.L: Bai motel, inork ez ezagutzeko.

Lapurra 1: Zera... nik...

L.L: Ez esan ezer. Ez daukazu zapi eta txapelik. Egon lasai hemen dauzkat eta. Tori

*(txapela eta zapia uzten dizkio eta lapurrak jantzi egiten ditu)*

Bezeroa 1: Primeran zaude.

Bezeroa 2: Orain ez zaitu inork ezagutuko.

Lapurra 1: Nahikoa da. Eman dirua!

L.L: Antzerki karneta jauna?

Lapurra: Nola?

L.L: Begira, lapurrek era ikusgarrian egiten dituzte lapurretak. Zuk ordea...

Lapurra 1: Zer gertatzen da lapurreta egiteko nire erarekin?

L.L: Sar zaitetz banketxean berriro eta saiatu lapurketa egiten.

*(Lapurra banketxetik atera eta berriro sartzen da).*

Lapurra 1: Hau lapurreta bat da! Eman dirua.

L.L: Hau da desastrea! Pena ematen duzu. Etorri eta entzun.

*(Belarrira azaltzen dio lapurreta nola egin behar duen. Lapurra, berriro ere banketxetik atera eta ondoren garrasika eta gehiegizko keinuekin sartzen da)*

Lapurra 1: Geldi mundu guztia!!! Hau lapurreta bat da eta ni oso arriskutsua naiz. Nire esanak betez gero ez da ezer gertatuko!

*(Lehiatilerak hurbildu eta zuzen zuzen burura apuntatzen dio. Ondoren Bezeroa 1 lepotik heldu eta eskopetarekin mehatxu egiten dio)*

Lapurra 1: Eman oraintxe bertan diru guztia, edo bestela akabatu egingo dut!

*(Bezeroak eta L.L. txaloko hasten dira)*

Bezeroa 1: Bikain!

Bezeroa 2: Primeran!

L.L: Mundiala!

Lapurra 1: Ongi egin dut?

L.L: Ezin hobeto! Orain bai. Hartu diru guztia eta joan zaitetzke.

Lapurra 1: Eskerrik asko aholku guztiengatik.

L.L: Agur eta hurrengo arte.

*(Dirua hartu eta banketxetik ateratzen da)*

## 4. eszena

Inspektorea: Iritsi gara azkeneko istoriora. Harrigarrienetan harrigarriena. Adi belarriak.

L.L: Egun on Tomas. Zer dugu gaur?

Bezeroa 1: Egun Jone. 200 euro atera nahi ditu

L.L: Ederki. 200 euro. Tori. Hurrengoa.

Bezeroa 2: 300 euro aurrezki kartillan sartu nahi ditut.

L.L: 300 euroko sarrera. Eskerrik asko. Hurrengoa.

Bezeroa 3: Egun on. 500 euro atera nahi ditut.

*(Bastoi zuria daraman itsu bat banketxean sartzen da. Irtetetzeroa doan bezero 1ekin estropezu egiten du. Lehiatilako langileari eta bezeroei bizkarra emanaz gelditzen da. Orudan pistola ateratzen du)*

Itsua 1: Geldi mundu guztia! Hau lapurreta bat da!!!

*(Ez dio inork kasurik egiten)*

Itsua 2: Ez duzue entzun? Lapurreta bat dela!!!

Bezeroa 2: Jauna, Kutxa lehiatila beste aldean dago.

Itsua 1: Beste aldean? Barkatu, hurbilduko nauzu kutxa lehiatileran?

Bezerao 2: Nola ez. Etorri nirekin.

*(Kutxa lehiatileran hurbiltzen du, baina orain ere L.Lri hitz egin beharrean beste aldera hitz egiten du).*

Itsua: Hau lapurreta da!!!

L.L: Hemen jauna, hemen.

Itsua: Hau lapurreta da!!!

L.L: Bai, bai, entzun dut.

Itsua: Eta altxa eskuak guztiok!!!

L.L: Kontuz aulkiarekin.

*(aulkiarekin estropezu egiten du).*

Itsua: Ai, ai, ai. Kaka zaharra!

L.L: Abisatu dizut...

Itsua: Altxatu dituzue eskuak?

*(Inork ez du eskurik altxatzen)*

Bezerao 3: Zera... bai... bai.

Itsua: Guztiok?

Bezerao 1+2+3+L.L: Bai.

Itsua: Horrela gustatzen zait. Eman iezadazu diru guztia!

L.L: Ondo da. *(Dirua mahai gainean uzten dio)*

Itsua: Beno zer, eman behar didazu dirua edo haserretu egin behar naiz?

L.L: Hortxe utzi dizut, mahai gainean.

Itsua: Eta non demontre dago mahaia?

L.L: Aizu, lapurreta baldin bada har ezazu zuk dirua!

Itsua: Hau da hau, gaixo dagoen pertsona bati laguntzarik ez ematea ere. Ez duzu bihotzik. Ondo da neuk aurkituko dut. *(Bezeroa 2 eta 3ri zuzenduz)* Eutsiko didazue nire tresnak mesedez?

Bezeroa 2: Nola ez.

*(Bezeroa 3ri pistola eta bezeroa 2ri bastoia uzten die. Ondoren, mahaia aurkitu nahian alde batetik bestera mugitu eta eskuekin gauza guztiak ukitzen hasten da).*

Bezeroa 2: Nik lagunduko dizut.  
Hotz... hotz... epeltzen... epeltzen... bero... bero... erretzen!

Itsua: Hemen dago!

Bezeroa 2: Oso ongi jauna. Tori makila.

Itsua: Eskerrik asko. Bukatu dut nire lana eta banoa. Agur

Bezeroa 3: *(Pistolarekin apuntatzen dio)* Geldi!

Itsua: Zer... zergatik?

Bezeroa 3: Pistola ahaztu duzu. Hori da burua hori.

Itsua: Eskerrik asko. *(Kaleruntz abiatu beharrean berriro kutxa lehiatilerara abiatzen da)*

Bezeroa 2: Hemendik ez *(bira erdia ematen laguntzen dio)*.  
Beste aldetik dago irteera.

*(Irtetzera doanean, bi polizi itsu , bastoi eta guzti, sartzen dira banketxean)*

Polizi itsua 1: Ez dadila inor mugitu! Polizia gara!

Polizia itsua 2: *(Bezeroa 2 eta 3ri hitz eginez)* Altxa eskuak! Atxilotuta zaudete lapurretatik!

Bezeroa 2: Baina gu ez gara izan.

Bezeroa 3: Ez dugu ezer egin.

Polizia itsua 1: Denek berdina esaten diguzue. Tontoak garela uste dute.

Polizia itsua 2: Segi kartzelara! Eta ez saiatu ihesik egiten, oso begi ona dugu eta.